



II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Bermeoko Udala

Behin betiko onestea auzo alkateen Ordenantzaren aldaketa

Jendaurreko epean erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko bihurtzen da 2024ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurak Bermeoko udalerrian Auzo Alkateen ordenantzaren aldaketa hasiera batean onartutako erabakia. Ordenantzaren testu osoa argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Bermeon, 2024ko abuztuaren 1ean. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly



BERMEOKO AUZO-ALKATEEN ORDENANTZA ZIOEN AZALPENA

Ordenantza honen helburua, Bermeoko auzo-alkateen erregimena eta hautaketa arautzea da, aspalditik datorren kargua bada ere, usadioz funtzionatu izan delako.

Hori dela eta, ohituraz ezarrita dagoen karguaren ezaugarriak eta hautaketa modua modu zehatz eta argian jasota geratu dadin, beharrezkoa ikusten da arauketa hau egitea.

Ordenantzaren beharrezana, usadioa idatziz jasotzeko premian oinarritzen da, eta hori eraginkortasunez lortzeko ordenantza da tresna egokia.

Ordenantzan xedatutakoak, ase nahi diren beharrezan bermatzeko gutxienekoak dira, eta proportzionaltasunez arautzen dira, auzo-alkateen karguaren erregimena eta hautaketa behar bezala arautzeko nahitaezkoak diren xedapenak soilik jasota.

Araubide honen bidez, gainera, hautaketa prozesuaren eta hautatuen segurtasun juridikoa bermatu nahi da, prozesuaren ezaugarriak eta auzo-alkate lege zuzendutakoaren eskubide eta betekizunak arautzen direlako.

Eta hori guztia araututa edukitzeak, segurtasun juridikoa bermatzen duen moduan, gardentasunez aritzea indartzen du, era arautuan eta normalizatuan jardutearen ondorio zuzena baita. Ondorio zuzena den moduan ordenantza honen bidez administrazioaren funtzionamenduan efizientzia handitzea, segurtasun juridikoarekin eta gardentasunaz aritzeagatik.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Xedea

Ordenantza honen helburua auzo-alkateen erregimena eta hautaketa prozesua arautzea da.

2. Eragin eremua

Ordenantzaren eragin eremua Bermeoko Udalerriko bederatzi auzoak dira: Agirre, Almika, Arane-Gibelortzaga, Artika, Arranotegi, Demiku, Mañu, San Andres eta San Migel. Auzo bakoitzeko auzo alkate bat izendatuko da.

3. Auzo-alkate karguaren izaera

1. Auzo-alkatearen kargua borondatezkoa da eta ez du inolako kontraprestaziorik sortzen.

2. Auzo-alkateak izendatzearen usadioa, udala eta auzotarren arteko kanal zuzen bat edukitzeko premian oinarritzen da, hiri-gunetik kanpo eta landa eremuan bizi diren herritarrek dituzten beharrezan, zailtasun edota egoera bereziak udalera modu koordinatu eta bateratuan helarazi ahal izateko, eta udaletik auzotarrei zabaldu nahi zaien informazioa era zuzen eta arinean jasotzea ahalbidetzeko.

3. Hori horrela, auzo-alkatea da auzo bakoitzeko biztanleen izen eta ordezkartzan jarduten duen pertsona eta, era berean, auzoan udalaren izenean jarduten duena.

4. Auzo-alkate izateko baldintzak

- Adinez nagusia izatea.
- Hautatutako auzoan erroldatuta egotea, gutxienez hautaketa baino urtebete lehenagotik.
7. artikuluko 4 eta 5. ataletan jasotako izendatzeko debekurik ez edukitzea.
- Aurretik, 8. artikuluko 4. atalean jasotako arrazoiengatik kargutik kendu ez izana.
- Udalarekiko zorrik ez edukitzea.
- Zinegotzientzat Hauteskunde Araubide Orokorraren 5/1985 Lege Organikoak aurreikusitako bateraezintasun kausan ez egotea.



II. AUZO-ALKATEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

5. Auzo-alkateen eskubideak

Auzo-alkate izendatutako guztiek eskubide hauek izango dituzte:

1. Udalak auzoetan egingo dituen edo auzoetan eragina izango duten jarduera, ekintza eta kanpaina guztien informazio zuzen eta nahikoa izatea, auzotarrak informatu ahal izateko.
2. Informazioa aurrerapen nahikoarekin izatea, eraginak sortu baino lehenago auzotar guztiak informatuta egotea ahalbidetzeko.
3. Auzotarren beharrian, kexak eta udalera helarazi nahi den informazio guztia modu ordenatuan jasotzea, etengabeko prestasuna eta arreta suposatu gabe, premiazko eta atzeraezinak diren kasuetan izan ezik.
4. Udalarekin batzarrak edukitzea, informazio trukaketa egiteko.
5. Auzotarrekin batzarrak antolatzea informazio trukaketa egiteko.
6. Udalaren esker ona eta errekonozimendu publikoa jasotzea egindako lanagatik.
7. Karguari uko egitea, arrazoia edozein dela ere, edozein momentutan.

6. Auzo-alkateen betebeharrak

Auzo-alkate izendatutako guztiek betebeharrak hauek izango dituzte:

1. Kargua auzoaren eta auzotarren onuran erabiltzea, bere interes pertsonalak gainetik jarri gabe.
2. Udalak auzotarren artean zabaldu nahi duen informazioa auzotar guztiei helarazteko ahalegina egitea.
3. Auzotarrek udalera bideratu nahi duten informazioa batu eta udalean aurkeztea.
4. Bere karguagatik daukan informazioa ez gordetzea eta behar den pertsonengana bideratzea, ez bada isilpekoa dela.
5. Bere karguagatik eskuratzen duen isilpeko informazioa ez zabaltzea eta ez erabiltzea norberaren edo hirugarrenen onurarako.
6. Karguari uko egiteko eskaria egiten badu, auzo alkate berria izendatu arte karguan jarraitzea, beti ere gehienezko bi hileko epean. Hile bi igarotakoan izendapen berria egin gabe egongo balitz, karguan jarraitzearen betebeharretik liberatua geratuko da.
7. Udalak auzo alkateekin antolatzen dituen batzarretan parte hartzea, ez bada parte hartzeko ezintasuna edo ez bertaratzeko justifikatutako arrazoia duela.

III. KARGUAREN IRAUNALDIA ETA KARGUA GALTZEA

7. Karguaren iraunaldia

1. Auzo-alkateen izendapenak 4 urteko iraunaldia edukiko du gehienez, hauteskundetik eta hauteskundera joango dena. 4 urteko epe horri legealdi deituko zaio.
2. Hauteskundeen ondorioz auzo alkate kargua hartzen denetik eta 4 urte igarota hurrengoko hauteskundeen ondorioz izendatutakoak kargua hartu arteko iraupena izango du, ez bada, araututako arraziengatik, izendapena bertan behera geratzen dela.
3. Izendapena legealdia hasita dagoenean egiten bada, legealdi amaiera arteko iraupena edukiko du.
4. Ez dago inolako mugarik legealdiz legealdi auzo-alkate bera izendatzeko auzotarrek horrela hautatzen badute egiten diren hauteskundeetan.
5. Nolanahi ere, legealdi berean ezingo da hautagai berdina berriro izendatu aurretik karguari uko egin badio. Muga hau ez da aplikatuko legealdi desberdinetan bada. Baina, edozein kasutan, ezingo da inoiz gehiagotan izendatu karguari 3 aldiz uko egin dion pertsona.



8. Kargua galtzeko arrazoiak

Auzo-alkate izendatutako pertsonen arrazoi hauengatik galduko dute kargua:

- Heriotzagatik.
- Auzotik kanpo erroldatzeagatik.
- Karguari uko egiteagatik.
- Kargutik kendu izana 6. artikuluko betebeharrak ez betetzeagatik.

Lehenengo kasuan izan ezik, izendapenak auzo-alkate berria izendatu arteko eraginak izango ditu, beti ere bi hileko epea gainditu gabe.

9. Kargutik kentzeko arrazoiak

1. Auzo-alkate bat kargutik kendu ahal izango da 6. artikuluan araututako betebeharrak betetzen ez baditu. Betebeharren ez betetzea modu honetan zenbatuko da:

- 6.1 artikuluko betebeharra bi aldiz ez betetzea, nahikoa izango da kargutik kentzeko prozedurari hasiera emateko.
 6. artikuluko 2., 3. eta 4. ataletako betebeharren kasuan, ez betetzea hiru aldiz gertatu beharko da kargutik kentzeko arrazoa izateko.
 - 6.5 artikuluko betebeharra behin ez betetzea nahiko izango da kargutik kentzeko prozedura hasteko.
 - 6.7 artikuluko betebeharra bost aldiz betetzen ez bada, kargutik kentzeko prozedura hasteko zioa izango da.
2. Ezingo da inor bere kargutik kendu hori erabakitzen duen prozedura izapidetu gabe.

10. Kargutik kentzeko prozedura

Kargutik kentzeko prozedura modu honetan izapidetuko da:

- Espedientea Alkatetzaren erabakiz hasiko da, berdin ofizioz zein salaketa bidez. Espedientea hasteko erabakian, prozedura izapidetuko duen instruktorea izendatuko da.
- Espedientea zabaltzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta alegazioak aurkezteko 10 laneguneko epea emango zaio. Alegazioekin batera, frogak aurkeztu ahal izango ditu interesdunak.
- Alegazio epea amaituta, instruktoreak, frogaldia zabaldu ahal izango du, egitateak era argian frogatuta ez daudela ikusiko balu.
- Frogaldia amaituta, instruktoreak erabaki proposamena egingo du, eta 10 laneguneko entzunaldia emango zaio interesdunari.
- Entzunaldia igarota, Alkatetzak ebazpena emango du, kargutik kendu edo espedientea artxibatu erabakiko duena.
- Atal honetan arautzen ez den guztirako, Prozedura Administratibo Orokorra arautzen duen 39/2015 Legeak xedatzen duena aplikatuko da.

IV. AUZO- ALKATEEN MAHAIA

11. Auzo-alkateen mahaiaren funtzioa eta eraketa

1. Auzotarren informazioa eskuratu eta udalaren informazioa emateko, udalak auzoei eragiten dien informazioa zabaldu eta azaltzeko, eta auzoei eragiten dien beharrezko erabakiak hartzeko leku arrunta auzo-alkateen mahaia izango da.

Mahaiari, auzotarren informazioa eskuratzeko gain, auzoei eragiten dien mota guztietako informazioa partekatuko da; egokiak diren azalpenak emango dira; proiektuen jarraipena egingo da; beharrezkoak diren erabakiak hartuko dira, eta erabaki hauen jarraipena egingo da.

2. Hauek izango dira mahai honetako partaideak: lugintzako zinegotzi delegatua, auzo-alkateak, udaleko enplegatu bat.

3. Lugintzako zinegotzi delegatua izango da mahaiko presidentea.



4. Mahaiko idazkaria horretarako izendatutako udaleko enplegatua izango da.
5. Mahaiko presidentearen funtzioa izango da batzarrak deitzea, batzarraren ordena eta funtzionamendua bermatu eta hartutako erabakiak exekutatzeko beharrezko aginduak ematea.
6. Mahaiko idazkariaren funtzioa izango da batzarretako deialdiak prestatzea, presidentearen aginduz, eta batzarretako aktak egitea.
7. Alkateak auzo-alkateen mahaiaren parte hartu ahal du. Kasu horretan berak hartuko luke mahaiaren presidentzia eta batzarra zuzentzeko ardura. Hala ere, lugintzako zinegotzi delegatuaren funtzioa izango da batzarrak deitzea eta hartutako erabakiak exekutatzeko beharrezko aginduak ematea.
8. Alkateen mahaiaren udal gobernuko zinegotziek edota udal teknikariek parte hartu ahal duete gai konkreturen batek hala eskatuko balu.

12. Auzo-alkateen mahaiaren funtzionamendua

1. Mahaiaren batzarren maiztasuna eta egutegia urte hasieran ezarriko da, partaide guztiak entzun eta gero. Onartutako batzar horiek ohiko batzar izaera izango dute.
2. Onartutako egutegitik kanpo deitutako batzarrek ezohiko izaera izango dute eta premiatusun edo egoera berezi batek horrela eskatzen duelako deitu ahal izango da.
3. Auzo-alkateek ere ez ohiko batzarrak deitzeko eskaria egin ahal izango dute. Premiatusun edo larrialdi kasuan, nahikoa izango da auzo alkate batek eskatzea eta, presidenteak premiatusun edo larritasuna egiaztatuta dagoela ikusten badu, ez ohiko batzarra deituko du gehienezko 5 laneguneko epean.

4. Ohiko batzarrak 3 laneguneko aurrerapenarekin deituko dira gutxienez.

Ez ohiko batzarren bat premiazkoa balitz, ahal den lehentasunarekin egingo da, eta erregela orokor moduan gutxienezko 24 orduko tartea bermatuta, batzarkideen presentzia bermatu ahal izateko.

Deialdiak egiteko ohiko bideak e- maila edo telefonoa izango dira.

5. Batzarrak egiteko, beharrezko izango da presidentea, idazkaria, eta auzo alkateen herena egotea ohiko batzarretako lehenengo deialdian.

Ohiko batzarretako bigarren deialdian, egun berean izango dena lehenengo deialdirako zehaztatu ordua baino ordubete beranduago, nahikoa izango da presidentea, idazkaria eta auzo alkateen laurdena egotea.

Bigarren deialdian beharrezko quoruma egongo ez balitz, batzarra bertan behera geratuko da besterik gabe.

Ez ohiko batzarren kasuan, nahikoa izango da presidentea, idazkaria eta kideen laurdena egotea lehenengo deialdian. Bigarren deialdian, ordubete beranduago izango dena, nahikoa izango da presidentea, idazkaria eta kide bat egotea.

Bigarren deialdian beharrezko quoruma egongo ez balitz, batzarra bertan behera geratuko da besterik gabe.

6. Erabakiak, gehiengo soilaz hartuko dira eta, berdinketarik balego, bigarren bozketan egin beharko da.

Bigarren bozketan berdinketa mantenduko balitz, presidentearen kalitatezko botoaz hartuko da erabakia.

7. Mahaiaren hartutako erabakiak lotesleak izango dira Bermeoko Udalarentzat, beti ere lege eragozpenik ez badute eta Bermeoko Udalaren Aurrekontu Orokorraren muga barruan sartzen badira.

8. Mahaiko erabakiak exekutatu egin beharko dira, ez bada aurreko atalean aipatutako oztoporen bat dagoela.

Horrela balitz, hurrengo mahaiaren oztopo edo ezintasun horren berri emango da eta erabakia aldatu edo moldatu beharko da, oztopo horiek gaintitze aldera.

Oztopoa gaintiezina balitz, erabakiaren ez-betearazpena aldarrikatuko du mahaiko presidenteak oztopoaren berri izan eta mahaiaren hurrengo batzarrean.



V AUZO-ALKATEAK IZENDATEKO PROZESUA

13. Hauteskunde arrunten arauak

1. Auzo-alkateak izendatzeko prozesu arrunta, legealdiko hauteskundeak izango dira.
2. Hauteskundeak udal hauteskundeak egin eta korporazioa eratu ondoren egingo da.
3. Eguna, lekua eta ordutegia, udal Osoko Bilkurak hartutako akordio bidez erabakiko da, baina edozein kasutan igandean izango da, partaidetza bermatu ahal izateko.
4. Orokorrean, hauteskunde mahai bat eratuko da auzo bakoitzeko, auzo alkatea eta udal zinegotzi batekin.
5. Salbuespen kasuetan, hauteskunde mahai bakar bat eratu ahal izango da auzo guztietarako, eta mahai horretan auzo alkateak eta udal zinegotziak egongo dira txandaka. Kasu honetan, mahaia bakarra izanda ere, auzo bakoitzeko hauteskontzi bana egongo da, boto zenbaketa errazteko.
6. Botoa eman ahal izango dute Osoko Bilkurak hauteskundeak noiz egingo diren akordioa hartzen duen egunean auzoetan erroldatuta dauden adinez nagusiek.
7. Botoa isilekoa izango da eta gutun-azal barruan sartutako txarteletan egingo da. Txartel horietan aurreko paragrafoan zehaztutako egunean auzo horretan erroldatuta egon den adinez nagusi baten izena jarri ahal izango da.
Gutun-azalak eta txartelak udalak emango ditu.
8. Botoa emateko nortasuna kreditatu beharko da eta erroldako zerrendan egon beharko da.
Nortasuna, NAN, pasaporte edo gidatzeko baimen bidez kreditatu beharko da. Agiri hauek kadukatuta egon daitezke baina jatorrizkoak izan beharko dira.

14. Posta bidezko botoa

1. Auzokideek botoa postaz bidaltzeko aukera izango dute. Horretarako, hauteskunde eguna baino 15 egun natural lehenago, botoa postaz emateko eskaria egin beharko diote udalari.
2. Udalak, hauteskunde eguna baino 10 egun natural lehenago, botoa emateko gutun-azala eta txartela bidaliko dizkio, horretarako zehaztutako helbidera. Gainera, errolda agiria ere bidaliko dio interesdunari.
3. Interesdunak, jasotako txartelean hautagaiaren izena ipiniko du eta udalak bidalitako gutun-azalean sartuko du. Gutun-azala itxi eta, errolda agiriarekin batera, beste gutun-azal batean sartuko du, eta Bermeoko Udalera bidaliko du postaz. Helbidean, botoa zein auzotarako den zehaztu beharko da.
4. Hauteskunde egunaren aurreko barikura arte jasotako botoak bakarrik hartuko dira kontuan hauteskunde egunean, eta boto hauek udaleko idazkari nagusiak gordailutuko ditu hauteskunde egunera arte. Hauteskunde egunean, auzo alkateari emango zaizkio, hauteskontzian sartzeko.
5. Hauteskunde egunean, botoa hauteskontzian sartu aurretik, mahaiak gutun-azalean botoa eta errolda agiria daudela egiaztatuko du eta, errolda agiriaren arabera auzo horretan erroldatuta dagoela egiaztatu ondoren, botoa hauteskontzian sartuko du auzo alkateak.

15. Boto zenbaketa

1. Hauteskundeak egiteko ordutegia amaituta, mahaiko kideek hauteskontziak zabalduko dituzte eta botoak zenbatuko dituzte.
2. Botoak zenbatuta emaitzen aktaren bi ale beteko dira, bat hauteslekuan jartzeko eta bestea espedientean jasotzeko, eta mahaiko kideek sinatuko dituzte.



16. Auzo-alkateen izendapena

1. Hauteskundeak egin eta hurrengo astean, boto gehien lortu dituzten hautagaiei dei egingo zaie kargua hartu nahi duten edo ez adierazteko. Karguari uko egin nahi badiote, idatziz adierazi beharko dute deia jaso eta 48 orduko epean.

2. Boto gehien lortu duen hautagairen batek uko egingo balu, boto gehien lortu dituen hurrengo hautagaiari deituko zaio, eta horrela jarraituko da hautagairen batez baiezkota eman arte edo botoak jaso dituzten hautagaien zerrenda amaitu arte.

3. Boto berdinketaren kasuan, berdinketan dauden hautagai guztiei deituko zaie eta, batek baino gehiagok kargua hartzeko interesa agertuko balu, euren arteko zozketa egingo da auzo alkate nor izendatuko den ebazteko.

Zozketa publikoa izango da eta eguna, lekua eta ordua, aldez aurretik jakinaraziko da.

4. Zeintzuk hautagai izendatu jakiten denean, izendapena Osoko Bilkurak egingo du, eta akordioa hartu eta hurrengo egunetik aurrera edukiko ditu eraginak.

5. Hautagai guztiek uko egingo balute, prozesu berezia burutu beharko da auzo alkatea izendatzeko.

17. Hauteskunde berezien arauak

1. Hauteskunde bereziak egin beharko dira hauteskunde arrunten ondorioz hautagairik izendatu ezin izan bada edo, arrazoia edozein dela era, izendatuta egon den auzo alkateak kargua galduko balu eta hauteskundeetan ateratako hautagaien zerrendako inork kargua onartuko ez balu. Zerrendako hautagaiei boto kopuruen arabera ezarritako ordena errespetatuz (gehienean dituenetik gutxienean) deituko litzaieke.

2. Deialdia udal Osoko Bilkuraren akordio bidez onartuko da, hauteskunde bereziak egiteko beharrezana sortu eta bi hileko epean gehienez.

3. Gainerako arauak, hauteskunde arruntei aplikatzen zaizkienak izango dira.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau behin betikoz onartutako bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 lanegun igaro ondoren sartuko da indarrean.